

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, URDULIZKO UDALAREN 2018KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Urdulizko Udalaren eta Urduliz Urbanismo Sozietatea SA sozietate publikoaren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2018ko ekitaldikoa.

2018ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 1,4 mila euroan gehitzen duten zenbait doiketa azaleratu diren. Gainera, ezin ondoriorik eskuratu izan da Udalaren Balantzeko aktibo ez arrunteko saldoei dagokienez. Sozietatearen Kontuek ez dute 2018ko abenduaren 31ko inbertsio konpromisoen berri ematen, 5,3 milioi euro.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen egoera finantzarioa aztertu du eta azpimarratu du **hobetu egin dela** eragiketa arruntek sortutako **aurrezki-maila**. 2018ko abenduaren 31n Diruzaintza likidoak laukoiztu egin ditu hirurteko inbertsioak.

Halaber, adierazi da Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2018an aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela**. Udalak **ez du zorrik**.

Udalak eta bere sozietateak **zuzentasunez bete dute** 2018ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren Udaleko **Kontratazioaren** atalean (bi kontratu luzatu dira mugaegun-epa gaindituta eta zerbitzu baten prestazioa bi kontratutan zatikatu da).